



LANKIDETZA-HITZARMENA
DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO UDALA
ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEKO EKIMENAK GARATZEARI BURUZ

Donostia-San Sebastián, 2003ko abenduaren 17a

BILDUTA

Alde batetik, ODON ELORZA GONZALEZ jauna, Donostia-San Sebastiáneko Udaleko Alkate Udalburua, bere izen eta ordezkartzan.

Bestetik, LANDER SARASOLA ITUARTE jauna, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusaren Errektoreordea, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkartzan, eta JAVIER QUEL LÓPEZ jauna, Unibertsitate bereko Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailaren Zuzendaria, berak zuzentzen duen Sailaren ordezkartzan.

Bi hitzarmenakideek elkarri aitortzen diote lankidetzaz-hitzarmen hau izenpetzeko legezko gaitasun nahikoa, eta

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGO.- Donostia-San Sebastiáneko Udalak, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko eta Estatuko Hiri Hezitzaileen Sareko (RECEko) kide, eta Euskal Herriko Unibertsitateak, tolerantzia eta errespetuari buruzko heziketa sustatu nahi dute, bakearen kultura sustatze aldera eta, era horretan, tokian zein nazioartean bizikidetzaz bidezkoago bat sortze aldera.

Unibertsitatea, gogoetarako tokia izan behar da, sentsibilitate ezberdinak elkar topatzeko gunea, eta pertsonen eta errealitate zein kulturen arteko eztabaida, ezagutza eta hurbilpena sustatu behar du.

Donostia-San Sebastiáneko Udalak konpromisoa du giza eskubideen erabateko defentsarekin eta demokraziaren sakontzearekin eta hirian paper aktiboa hartzen du, heziketa-eragile bat gehiago izanik, bake-kultura hedatzeko proiektu eta ekimenak bultzatzeko orduan.

Ildo horretan, nabarmendu behar da Donostia-San Sebastiánek "Bartzelonako Akordioa. Giza Eskubideen Aldeko Hirien Akordioa" sinatu

zuela 1998ko urriaren 17an Europako 41 hirirekin batera. Bertan, sinatzaileek konpromisoa hartu zuten, Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren lankidetzaz, "Hirian Giza Eskubideak Zaintzeko Europako Agiria" erredaktatzeko.

Testuinguru horretan, Donostia-San Sebastiáneko Udalak asmoa du "Itsasargi" Giza Eskubideen Udal Institutua martxan jartzeko. Hartara, gune bat sortu nahi da bakea eta askatasunaren aldeko Erakundeen eta herritarren jarduera guztiak artikulatzeko eta biltzeko. Bertan, Giza Eskubideei buruzko prestakuntza- zein ikerketa-programak eta sentsibilizazio- zein heziketa-programak garatuko dira, baita Giza Eskubideen behatoki bat ere.

BIGARRENIK.- 1997 urtetik, hau da, lehenengo aldiz egin zenetik, Donostia-San Sebastiáneko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroak antolatzeko lankidetzan aritu dira, Lankidetzeta eta Tolerantzia Zinegotzigoaren bidez eta Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailaren bidez hurrenez hurren.

Ikastaro horiek urtean behin egiten dira, ikasturtean, eta horien xedea da Giza Eskubideen babesari buruz sortzen diren arazoak aztertzea.

Lankidetzeta horren barnean, gainera, Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteko Irakaskuntza Saioan parte hartzeko beka ematen dira eta Ikastaro horietako hizlarien ekarpenak biltzeko liburua argitaratzen da.

HIRUGARRENIK.- Lankidetzeta hori sendotzen joan da urteen poderioz; horrenbestez, bi aldeek uste dute lankidetzeta horren edukia zehaztu egin behar dela, Lankidetzeta Hitzarmen honen bidez.

Aipatutako adierazpenak kontuan hartuz, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen dute ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Donostia-San Sebastiáneko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzeta-markoa

ezartzea, Giza Eskubideei buruzko gogoeta-, ikerketa-, prestakuntza-, hedapen- eta sustapen-ekimenak bultzatzeko, batez ere etorkizuneko Donostia-San Sebastiáneko Giza Eskubideen Udal Institutuari lotutako alderdiei dagokienez.

BIGARRENA.- Donostiako Udalak **HOGETA BOST MILA EURO (25.000 €)** erabiliko ditu 2003-2004 ekitaldian ondorengo jarduerak finantzatzeko:

- a).- 2003-2004ko Donostiako Giza Eskubideen ikastaroa antolatu, diseinatu eta garatu: **HAMAR MILA BOSTEHUN ETA HAMAZORTZI EURO** gehienez (10.518 €).

Ikastaroak zabalik egongo dira EHuko ikasleentzat baita GKEetako kideentzat zein Giza Eskubideei buruz prestatzeko interesatuta dauden guztientzat ere.

Udalak eskubidea hartzen du matrikularik egin gabe bere langileentzat lau toki erreserbatuta edukitzeko.

EHuko Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailari dagokio ikastaroen programa prestatzea eta irakasleak definitzea.

- b).- Ikastaroetan matrikulatutako ikasleentzat, Estrasburgoko *René Cassin* Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteko Irakaskuntza Saioan parte hartzera bideratutako lau beka eman: **ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHIRU EURO** gehienez (7.813 €).

Saio horiek urtean behin egiten dira, uztailean. Beketan sartuko dira desplazamenduak, matrikula eta dietak.

Bekak esleitzeko, ikasle interesatuek, Giza Eskubideen Ikastaroan emandako ikasgaiei lotutako lan bat egingo dute. Lan horiek EHuko Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko ordezkari batek eta Donostia-San Sebastiáneko Udalaren Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantziako Zuzendaritzako ordezkari batek ebaluatuko dituzte, eta beraiek kalitate handienekoak hautatuko dituzte, erabaki hori behin betikoa izanik.

Udalak eskubidea hartzen du interesgarritzat jotzen dituen lanak argitaratzeko.

- c).- 2003-2004ko Giza Eskubideen Ikastaroetan emandako hitzaldiak biltzen dituen liburuaren 300-350 ale editatu eta erosi (ale bakoitzaren



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

behin betiko kostuaren arabera): SEI MILA ZAZPIEHUN ETA BEDERATZI EURO gehienez (6.669 €).

Adierazitako kopuruak aldatu ahal izango dira eta beste kontzeptu batzuk izan, aurretiaz bi aldeak ados jarri ondoren, baina guztizko kopurua ez da inoiz HOGEITA BOST MILA EUROtik gorakoa izango (25.000 €).

HIRUGARRENA.- EHUK, bereziki Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak, konpromisoa hartzen du Donostia-San Sebastiáneko Udalarekin lankidetzan aritzeko Giza Eskubideak defendatu eta sustatzeko proiektu eta ekimen guztietan, batez ere "Itsasargi" Giza Eskubideen Udal Institutua sortzeko proiektuari buruzko lanetan.

LAUGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPENA

Bi aldeek sistema bat ezarriko dute hitzarmen honen edukien jarraipen egokia egitea bermatzeko bi erakundeon arteko lankidetzaren sendotu eta hobetzeko.

Era berean, EHUKo Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak konpromisoa hartzen du Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzaren eta Tolerantziaren Alorrari komenigarritzat jotzen duen dokumentazio guztia emateko hitzarmen honetan agertzen diren jardueren jarraipen hobea egin dadin.

BOSGARRENA.- ORDAINTZEKO ERA

Hitzarmen hau sinatzen denean, Udalak BEDERATZI MILA EURO (9.000 €) sartuko ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen eta Erakundearen Historia Sailak adierazitako kontuan 2003-2004ko Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroak antolatu, diseinatu eta garatzeagatik egin beharreko ordainketaren lehenengo zati moduan.

Geroago, 2004ko maiatzaren 31n, Udalak kontu berean ondorengo kopuruak sartuko ditu:

- MILA BOSTEHUN EURO (1.518 €), Donostiako Giza Eskubideen Ikastaroak antolatu, diseinatu eta garatzeagatik egin beharreko ordainketaren bigarren zati moduan.
- ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHIRU EURO (7.813 €), ikastaroetan matrikulatutako ikasleentzat lau beken ordainetan, Estrasburgoko René



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteko Irakaskuntza Saioan parte har dezaten.

Azkenik, 2003-2004ko Giza Eskubideen Ikastaroetako hitzaldiak biltzeko liburu editatu ondoren eta, lehenengo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Sailak dagokion faktura aurkeztu duenean, Udalak Sail horri liburuaren kostua ordainduko dio, kontuan hartuz ordainketa hori ezin dela izan SEI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO (6.669 €) baino handiagoa, aipatutako liburuaren aleak editatzeko eta erosteko hitzarmen honen bigarren klausularen arabera.

SEIGARRENA.- JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia eta Zuzenbidearen eta Erakundeen Sailak fakturen bidez justifikatu behar ditu hitzarmen honetan aipatutako jarduerengatik hitzarmenaren arabera Udalak esleitutako diru-laguntzen kargura egindako gastuak.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen hau, bi aldeen ebaluazioaren ondoren, urtero berrituko da, betiere aldeetako batek kontrako nahia azaltzen ez badu.

Eta adierazitako guztiari buruzko adostasunaren erakusgarri, alde parte-hartzaileek Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatzen dute bikoiztuta, goiburukoan zehaztutako toki eta datetan.

ODON ELORZA GONZALEZ
Donostia-San
Sebastiánek Alkatea

LANDER SARASOLA ITUARTE
EHUren Gipuzkoako
Campuseko Errektoreordea

JAVIER QUEL LÓPEZ
Nazioarteko Zuzenbidea,
Nazioarteko Harremanak eta
Zuzenbidearen Historia
Sailaren Zuzendaria